NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEN FEDERAZIOA — FEDERACION NAVARRA DE MUNICIPIOS Y CONCEJOS

# COVID-19. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA EGUNGO EGOERA (926/2020 Errege Dekretua, Nafarroako Foru Komunitateko Lehendakariaren 24/2020 Foru Dekretua, 57/2020 Foru Agindua)

## Prebentzio neurri orokorrak




Pertsonen arteko 1,5 metroko tartea, gutxienez.



Eskuak garbitzea soluzio hidroalkoholikoarekin edo ura eta xaboiarekin.



Azalerak garbitu eta desinfektatzea.



- Lokal eta instalazioak maiz aireberritzea (ahal dela aireztapen naturala); betiere egunean hirutan gutxienez.



Maskara erabiltzea uztailaren 15eko 34/2020 Foru Aginduan araututakoaren arabera.

## Mugikortasunari ezarritako mugak



- Gaueko mugikortasuna mugatu egiten da **23:00etatik hurrengo eguneko 6:00etara**. Ordu-tarte horretan, 24/2020 Foru Dekretuak aurreikusten dituen jardueretarako soilik egonen da baimenduta mugikortasuna.
- Nafarroako Foru Komunitatera mugatzen da mugikortasuna, lurraldeko joan-etorriak mugatuz salbu eta behar bezala justifikatutako joan-etorrien kasuan.

## Garraioa



- Erabiltzaileen gehieneko edukiera % 50 murrizten da betiere flotaren gehieneko edukierak horretarako aukera ematen badu.

| | | |
|---|---|---|
| Ostalaritza eta jatetxeak | • Tabernak, kafetegiak eta jatetxeak itxita egonen dira.<br>• Etxera eramateko janariak saltzea baimenduta dago aurretiko hitzordua izanda eta 21:00ak arte.<br>• Hoteletako eta bestelako ostatuetako jantokiak irekitzea baimenduta dago; gehienez, 6 pertsona egonen dira mahai bakoitzean. | |
| Beilak eta hiletak | • Aire zabalean, gehienez, 25 pertsona.<br>• Toki itxietan, gehienez, 10 pertsona.<br>• Hileten segizioan, gehienez ere, 25 pertsona. | |
| Santu guztien eguna | • Pertsona 1 hiru metro koadroko. 100.000 biztanlez gorako herrietan, edukiera 2.000 pertsonakoa izanen da, gehienez ere eta 4 pertsona arteko taldeetan. Pertsonen arteko 1,5 metroko distantzia gordeko da. | |
| Kultua | • Gehieneko edukiera: %30. Kasu guztietan, 2,25 metro koadro egon beharko dira erabiltzaile bakoitzeko. | |
| Saltokiak eta zerbitzu profesionaletako jarduerak | ➢ Txikizkako merkataritza eta zerbitzu profesionaletako jarduerak | • Gehieneko edukiera: Baimendutako gehieneko edukieraren %40.<br>• Ixteko ordua: 21:00ak beranduenez. |
| | ➢ Hipermerkatuak, azalera ertain eta handiak, merkataritza-gune edo -parkeak | • Ez dago baimenduta gune komunetan egotea, barne direla atsedenguneak, saltokien arteko joan-etorrietarako ez bada.<br>• Josteta eremuak itxita egon beharko dira, hala nola haurren jolastokiak edo antzekoak.<br>• Ixteko ordua: 21:00ak beranduenez.<br>• Gehieneko edukiera: %40. |

| | |
|---|---|
| Merkatuak (merkatu txikiak) | • Barrutiek sartzeko gune bat eta irteteko beste bat edukiko dute, eta biak ongi bereizita egonen dira.<br>• Postuak aurrez aurre bereizita egon beharko dira, igarobide baten bidez. Bide horrek bermatuko du erabiltzaileen artean gutxienez 1,5 metroko segurtasun-tartea gordetzen ahal dela, eta 4,5 metroko zabalera izanen du gutxienez.<br>• Elkarren ondoko bi posturen artean elementu isolatzaileak paratuko dira edo 1,5 metroko tartea egon beharko da, gutxienez.<br>• Ixteko ordua: 21:00ak beranduenez. |
| Akademiak, autoeskolak eta irakaskuntza ez-arautuko zentroak, eta prestakuntza zentroak | • Gehieneko edukiera: %40.<br>• Gutxienez, 1,5 metroko segurtasun-tartea pertsonen artean.<br>• Ixteko ordua: 21:00ak beranduenez. |
| Liburutegiak | • Gehieneko edukiera: %30.<br>• Sustatuko da erabiltzaileek zerbitzuak telematikoki erabiltzea.<br>• EZ da haurrendako jarduerarik eginen.<br>• Ixteko ordua: 21:00ak beranduenez. |
| Kirol-jarduerak eta –instalazioak | • Kirol-instalazioen barnean eta egiten diren jardueretan ezin izanen da gainditu baimendutako gehieneko edukieraren %30, eta kanpoan, berriz, %40.<br>• Ez da aldagelarik eta dutxarik erabiltzen ahalko.<br>• Gimnasioak: Aurretiko hitzordua. Derrigorrezkoa da maskara erabiltzea.<br>• Desplazamendua eskatzen duten jardueretarako, $^{2}$0 $m^2$-ko espazioa gordeko da pertsona bakoitzeko. Desplazamendurik gabekoetan, 8 $m^2$.<br>• Ixteko ordua: 21:00ak beranduenez. |
| Haurren jolastokiak eta aire zabaleko kirol eremuak | • Gehieneko edukiera: %30.<br>• Ixteko ordua: 21:00ak beranduenez. |

| | |
|---|---|
| Bilerak esparru publikoan eta pribatuan | • Gehieneko edukiera: 6 pertsona, salbu eta bizikideak diren pertsonen kasuan. Eremu pribatuan, bilerak bizikidetza-unitatera mugatuko dira.<br>• Ez dira sartuko pertsona muga horretan laneko edo erakundeetako jarduerak, garraioarenak ezta irakaskuntza jarduerak ere, unibertsitateko irakaskuntza barne. Era berean, ez dira sartuko aplikatzekoak diren arauetan berariazko neurriak ezarriz arautzen diren horiek. |
| Igerilekuak | • Gehieneko edukiera: %30.<br>• Aldagelak erabiltzen ahalko dira, baina ez dutxak.<br>• Ixteko ordua: 21:00ak beranduenez. |
| Gorputz eta kirol jarduera zuzenduak espazio itxietan | • Taldeak: Gehienez, 6 pertsona. Salbu eta jarduera horiek Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren 3. artikuluan aipatzen diren irakaskuntzen babesean egiten badira.<br>• Nahitaezkoa izanen da maskara erabiltzea instalazioetako sarbide eta joan-etorrietan, bai eta kirol-jardueretan ere, intentsitate txikiko modalitateak badira.<br>• Ixteko ordua: 21:00ak beranduenez. |
| Monumentuak, erakustaretoak eta museoak | • Gehieneko edukiera: %30.<br>• Ez da inauguraziorik edo gertaera sozialik eginen.<br>• Bisita edo jarduera gidatuak: 6 pertsonako taldeak gehienez.<br>• Ixteko ordua: 21:00ak beranduenez. |
| Zinemak, antzokiak, auditoriumak, karpadun zirkoak eta antzekoak; eta kultur ekitaldi eta ikuskizun publikoetarako establezimenduak | • Gehieneko edukiera: %30. Gehieneko edukiera ezin izanen da inolaz ere 100 pertsonatik gorakoa izan.<br>• Aurretik esleitutako eserlekuak.<br>• Debeku da elikagaiak kontsumitzea ikuskizun edo jarduera hauetan.<br>• Aire zabaleko esparruetan eta antzeko lokaletan ezin izanen da gainditu gehieneko edukieraren %30; edonola ere, 200 lagun bilduko dira gehienez.<br>• Ixteko ordua: 21:00ak beranduenez. |

| | |
|---|---|
| Turismo jarduerak | • Turismo aktiboko eta naturako jarduerak: Gehienez, 12 laguneko taldeendako baimenduta daude. Aurretiko hitzordua.<br>• Turismo-gidarien jarduera: Aldez aurretiko hitzordua eskatuta eta, gehienez ere, 12 laguneko taldeetan. |
| Biltzarrak, topaguneak, negozio bilkurak eta hitzaldiak | • Modu ez-presentzialean eginen dira. |
| Joko eta apustuetarako establezimendu eta lokalak | • Jarduera bertan behera uzten da. |
| Ekitaldietarako funtzio anitzeko espazioak dauzkaten establezimenduak | • Jarduera bertan behera uzten da. |
| Aisialdiko etxabeak eta elkarte gastronomikoak | • Bertan behera geldituko da elkarte gastronomikoen eta peñen jarduera, eta itxita egonen dira. |
| Alkoholaren salmenta | • Debeku da alkohola saltzea 21:00etatik 8:00etara bitarte, edozein dela ere lokalek duten lizentzia mota. |
| Egoitzak | • Bertan behera uzten dira bisitak eta irteerak desgaitasuna dutenen egoitzetan eta adinekoen egoitzetan, salbu eta Foru Aginduan biltzen diren salbuespenezko kasuetan. |